

Nork zaintzen du nor?

Onintza Enbeitak zaintzaren gaiari buruz Berrian idatzi duen zutabea irakurtzeko proposamena egiten dizugu. Zaintzaren gaia senar-emazteen azalean jarrita azaltzen du.

Testua irakurri ondoren hauxe egin dezakezu:

- Antzeko egoera bat gogora ekarri eta ahoz azaltzeko zirriborro bat idatzi.
- Taldearen aurrean aurkeztu idatzitakoa.
- Bi taldetan jarrita, bakoitzaren esperientzia kontatu, eta ondorioak atera.



1. Zenbat holako?

Testua irakurri eta bukaerako esaldiari erreparatu, bereziki.

berria

Zaintza

Onintza Enbeita



Aurrez aurre eseri ziren larrialdietako itxaron gelan. Ez ziren gurekin ari hizketan, baina bai guztiok entzuteko moduan. Bietako bat bakar-bakarrik heldu zen ospitaleraino, oinez; esku batean muleta eta bestean paperak. Lagunari azaldu zionez, gaixotasun kroniko bat zeukan eta krisia nabaritzen zuen aldiro, ospitalera joaten zen paperak hartuta. Besteak esan zion bera ondo zegoela, baina senarrari laguntzera joana zela larrialdietara. Minbizia izan omen zuen, eta orain ezer txikirik daukanero urduri jartzen omen da. Ozen esan zuen bakea egiteagatik lagundu diola senarrari, ze berak omen daki ez daukana ezer.

Bakarrik joan zenak «gure gizon hauek!» esan zion: «Nire senarrak asko edaten zuen. Orain gutxiago, baina lehen beti tabernan! Inoiz ez dit inora laguntzen ni gaixorik egon arren, bera ondo dagoenez...». Besteak desesperazio keinuz erantzun zion: «Nireak edan ez, baina erre? Horrexegatik izan zuen minbizia ere. Nahi duena egin du bere denbora guztian eta orain, bere burua gaizki ikusten hasi denean, neu behar nau denetarako!».

Etorri zen senarra, eta emazteari besotik helduta egin zuen kanporako bidea. Emakume biek elkar agurtu zuten, eta muletaduna han gelditu zen, bakarrik. Eta zenbat holako, pentsatu nuen, zenbat holako!

Holako zenbat egoera ikusi dituzu zuk? Pentsatu haiei buruz eta zirriborro batean idatzi.



A large yellow rectangular area with a torn right edge, containing six horizontal lines for writing. On the left side, there are six circular punch holes.



Ondoren, taldekideei ahoz azaldu zirriborroan idatzi duzun egoera.

- *Niri, ospitalera joan nintzen batean ikusitakoa etorri zait burura:...*
- *Behin, herriko anbulategian ondokoa ikusi nuen:...*



2. Gu zaintzaile, edo, gure zaintzaile?

Emakumearen rola eta gizonarena argi desberdintzen ditu artikulua. Banatu gelakideak bi taldetan: gizonak batetik, emakumeak, bestetik.

Aztertu taldean zuen kasuan nola jokatzeko duzun artikuluan aipatzen den moduko egoeretan. Ondoren, alderatu ondorioak beste taldearekin.